

Hitzaurrea



imiñoak batzuk, erraldoiak besteak; txukunak zenbait, nahasiak hainbat... Horrelakoak dira gure inguruko liburu-dendak, eta 15. Behinola honetan horien inguruan arituko gara.

Hasteko, *Hitza eta Pitz* sailean Iruñeko AUZOLAN eta Bilboko LA GUSANA liburu-dendetako Haur eta Gazte Literaturaturako arduradunekin egindako elkarrizketa interesgarria plazaratuko dugu.

Jarraian, *Hizpide* gunean ANA UNANUE eta ARANTXA AGIRREURRETA kazetariak burututako ikerketa lana aurkituko dugu. Bertan, Euskal Herriko lurralde ezberdinetan aurki ditzazkegun liburu-denda zenbaitetan ibili eta gero, aurkitutakoaren isla bildu dute azterketa mamitsu eta baliogarri batean, zeinek erakutsiko digun gure liburu-denden gaur egungo egoeraren berri.

Gero, *Hitzorduen* eremuan YOLANDA ARRIETAK kapitaneatutako taldeak Galtzagorri Elkartearen izenean Galdakaon martxan jarritako programaren berri –Letren leihotik 2007– emango digu. Bertan parte hartutako guztiek –MIREN ATUTXA, MATTIN, ITZIAR ZUBIZARRETA eta YOLANDA ARRIETAK– beren ikuspuntua erakutsi dute.

Ondoren, *Hitza* atalean berriki Euskadi Sariaren jabe egin den idazleak –IBAN ZALDUAK– ipuin bat idatzi du gure-zuen aldizkari honetan. Ipuin onek bezala bukaeran duen indarragatik eta sorpresa puntuagatik irakurtzeak merezi du, dudik ez izan.

Segidan, *Hitza beste* atalean, aurrekoetan bezala erreseina bilduma oparoa aurki daiteke, baina zenbaki honetan zenbait ahots berriren iritziekin gozatzeko aukera izango dugu. Hortaz, gure ongi etorria guztioi eta gure esker beroena.

Amaieran, *Hitza* zerekin topatuko gara. Aldi honetan, PELLO ELTZABURUK egin du. Besteak beste, bitartekarien funtzioaz, liburu-denden etorkizunaz, instituzioen laguntzaz... hitz egingo digu Pamiela argitaletxeko Pellok. Egiazki interesgarria.

Azkenik, aipa dezagun ASISKO URMENETAK egindako lan bizia eta ikusgarria. Ohi bezala, haren marrazkiek lagunduko digute irakurketa orotan.

Ezin bukatu *Hitzaurre* hau Angel Domínguezi gure barkamenak adierazi gabe, izan ere, 14. *Behinola* primeran ilustratu ondoren izena aldatu baikenion. Barka.